


Gauero-gauero, Ofelia andereak ardiak
kontatzen ditu hesiaren gainetik jauzika,
lo hartu ahal izateko.

1... 2... 3... eta, hala, 18.erarte.

Ramoni, 19. ardia, beti geratzen da jauzi
egiteko gogoz. Baita 20, 21 edo 75. ardiak ere.

Zer egin dezakete denek jauzi
egin ahal izatea lotzeko?



ISBN: 978-84-10074-61-3 www.nubeocho.com
9 788410 074613

19. ARDIA

Blanca Lacasa Jorge Martín

nubeOCHO

19. ARDIA


Blanca Lacasa Jorge Martín





19. ARDIA

Blanca Lacasa Jorge Martín



19. ardia
Somos8 bilduma

© testuarena: Blanca Lacasa, 2024
© irudiena: Jorge Martín, 2024
© argitalpenarena: NubeOcho, 2024
© itzulpenarena: Maialen Mujika, 2024
www.nubeocho.com · info@nubeocho.com

Jatorrizko izenburua: *La oveja 19*

Lehen argitaraldia: Otsaila, 2024
ISBN: 978-84-10074-61-3
Legezko Gordailua: M-523-2024

Espanian inprimatua.

Eskubide guztiak erreserbatuta. Debekatuta argitalpen honen erreprodukzioa.



Ofelia andreak denbora luzea behar izaten du gauetan lokartzeko. Ohean biraka ibili ohi da.

Eta, gauero-gauero, Ofelia anderea ardiak kontatzen aritzen da.

Hori da Ofelia anderea zurrungaka aritzera arte lokarraraztea lortzen duen gauza bakarra: ardiak kontatzea.





Gauero-gauero, Ofelia anderea ardiak
kontatzen hasten da: ardi bat, bi, hiru, lau...
Eta, hala, 18.era iritsi arte.

18. ardira iritsi orduko... lozorroan
erortzen da!



Eta gau horietako bakoitzean, Ramoni ardia irtetzeko gogoz geratzen da.



Ez du marraka egiteko aukerarik ere izaten Ofelia andereari loak hartzen laguntzeko.

Ez du hesiaren gainetik jauzirik egiten...



Eta dena zorigaiztoko kasualitate batengatik: Ramoni ardia...



... 19. ardia da.

Hori dela eta, gauero-gauero, Ramoni ardia bere txanda iristea lortzeko irtenbideak topatu nahian aritzen da.



Behin, artzain-txakur mozorroa jantzi zuen. Baina segituan ohartu ziren haren planaz.



Beste behin, Florinda 13. ardiaren dortsala jokatu zuten karta-jokoan. Eta galdu egin zuen.

Gau batez, lehen lerrora iristen saiatu zen puzker OSO usaintsuak botaz.

Ezertxo ere ez. Gainontzeko ardiek haien gasaren aurkako maskarak atera zituzten, besterik gabe.



Beste batean, bere dortsaleko 19 zenbakiari 1 zifra ezabatu zion.



Baina, Belinda ardia, benetan 9. dortsala zeramana, izugarri haserretu zen eta berez zegokion lekura bidali zuen Ramoni.